


ANIMA: KOSTUEN EGITURA



- Zein dira gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

Gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak ondorengoak dira. Garrantzitsuena aplikazioa sortzea da, aplikazio gabe ezin izango genuelako proiektua aurrera eraman. Prozesu honen kostuen artean aplikazioa sortzeko behar ditugun baliabide elektronikoak (ordenagailuak, diseinu digitalerako tablet-ak...) daude batez ere, baina kontuan izan behar ditugu bestelako kostu batzuk, adibidez internet sare bat eta argi indarra.

Ondoren, aplikazioa garatuko dugu, datu berriak jarriz, produktu berriak gehituz eta abar. Hau ere proiektuaren kostu garrantzitsuenetako bat izango da, izan ere aplikazioaren garapenerako beharrezkoa den ikerketa ezberdinak egiteko kostu batzuk ordaindu beharko ditugu (enpresei informazioaren truke ordaindu beharrekoa, inkestak sortu eta aurrera eramateko beharrezko baliabideak ordaintzea...).

Hauetaz gain ere, interneten web orri bat izateko hilabetero diru kantitate jakin bat ordaindu beharko dugu, eta aplikazioak esakuratzeko plataformatan gure aplikazioa eskuragarri egoteko ere ordainketak egin beharko ditugu.

Publizitatea egingo dugun bi moduek ere kostu bat suposatuko digute. Interneten zehar (Youtube, Instagram, Twitter...) jarriko ditugun iragarkiak eduki ahal izateko dirua ordaindu behar izaten delako, eta 'influencer'-ek guri buruz beraien jarraitzaileei hitz egiteko ere diru kantitate bat ordaindu beharko diegulako.

- Kostu ezberdinak

→ **KOSTU FINKOAK:** Gure aplikazioa Play Store eta App Store-n eskainiko dugu. Play Store-n aplikazioa izateko ordainketa bakar bakar bat egin behar da, baina App Store-n izateko urtero 90€ ordaindu behar dira. Bi plataforma horietan eskaini nahi dugunez, kostu finko hori izango dugu. Baita ere gure web orria izateko diru kantitate bat ordaindu beharko dugu hilabetero, hau da, interneteko domeinu bat izateko. Gainera interneten publizitatea (web orrietako eta sare sozialetako iragarkiak) aktibo izateko diru kantitate bat ordaindu beharko dugu hilabetero.

→ **KOSTU ALDAKORRAK:** Gure proiektuaren kostu aldakorrak informazioa lortzearekin eta ikerketekin zuzenean egongo da lotuta. Eskainiko dugun informazioa lortzeko enprekin harrematean jarri beharko gara, eta guk behar dugun informazio horren truke diru kantitate bat ordaindu beharko dugu. Gainera, posiblea da enpresek ez eskaintzea informazioa zuzenean, eta beste erakunde edo talde batzuen bitartez lortzea, eta honako hauei ere ordaindu egin beharko diegu. Hontaz gain ere, agian guk geuk ikerketa bat egitea aukera dezakegu, ondorioetara iristeko eta horrela informazio baliagarria lortzeko, eta hau aurrera eramateko behar ditugun baliabideak ordaindu beharko ditugu (datuak, estatistikak, laborategietako ikerketak...). Eta azkenik, sare sozialetako 'influencer'-ek guri buruz hitz egin dezaten ordaindu egin beharko diegu egiten duten publizitate mota, kantitate eta maiztasunaren arabera.

→ **ESKALA-EKONOMIAK:** Gure kasuan ez dugu eskala ekonomiarik izango, izan ere gure proiektua ez da baliabide fisiko bat, beraz ez da egongo ekoizpen prozesu fisikorik.

→ HEDADURA-EKONOMIAK: Gure proiektuan hedadura ekonomia kasuak topa ditzakegu, izan ere aplikazioan esakiniko dugun informazioa gure web orrian eta sare sozialetan ere bai jarri dezakegu, izan ere azken bi hauetan ingurumena eta kutsaduraren inguruko informazioa eta datuak eskainiko ditugu. Gainera aurrera eramango ditugun inkestek jendearen lehentasunak eta iritziak erakutsiko dituzte, eta emaitza horiek publikoari eskaini ahal dizkiogu informazio gisa, baina guretzako ere baliagarriak izango dira gauza bat edo bestea egiteko orduan aukeratu ahal izateko.